



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura
Eguna: 2017ko ekainaren 30a
Ordua: 09:05 – 09:25
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratutakoak:

Iñigo Gómez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: José Luis de Valle Duque eta Alazne Lafragua Ureta, ez bertaratzearen arrazoiak azaldu dutenak.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2017ko ekainaren 8an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderditik (3);

Onartuta geratu da.

2. Kreditu-eskasiaren ondoriozko eragozpenak kentzea.

“ANTOLAMENDUKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA

Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 215. artikulua honako hau adierazten du:



«Kontu-hartzailtzako eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.»

Orobat, Artziniegako Egikaritze Aurrekontuaren Udal Arauaren 55. artikulua eta hurrengoak ere hartu dira kontuan.

Hona hemen eragozpenak:

Eragozpen-zk.	Data	Gaia
1-2017	2017-05-09	Aiarako Kuadrillaren transferentzia, honetarako: "2016ko HHS ekarpenen erregularizazioa". 596-2 sarrera-erregistroa, 2017ko otsailaren 27koa
2-2017	2017-05-09	2017/024 faktura, 2017ko otsailaren 14koa, ELDER Medio Ambiente Vitoria SLL enpresak igorria. Zenbatekoa: 99,00 € Kontzeptua: ustiategiako hondakinen unean-uneko bilketa 708 sarrera-erregistroa, 2017ko martxoaren 8koa
5-2017	2017-05-09	Aiarako Kuadrillaren transferentzia, honetarako: "2017ko bigarren hiru hilabeteak ekarpenak". 1209 sarrera-erregistroa, 2017ko maiatzaren 4koa
6-2017	2017-05-09	Aiarako Kuadrillaren transferentzia, honetarako: "Gizarte Ongizateko Laguntzailearen 2016ko likidazioaren zuzenketa". 1364 sarrera-erregistroa, 2017ko maiatzaren 18koa

Kontu-hartzailtzak egin ditu eragozpen horiek. Haietan, lege-agindu hau alde batera utzi dela jaso da:

- Kreditu nahikoa ez dagoela edo proposaturikoa egokitzen ez dela oinarritzat hartzen denean.
- Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean.
- Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.
- Eragozpena obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean.

Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 216.2. artikuluekin bat etorritik, espedientearen izapidetzea betan behera utzi behar da, eragozpen horiek konpondu arte.

Eragozpena gastuen ingurukoa bada, eskumena Udalbatzak izango du eta, sarreraren ingurukoa bada, Alkateak izango du, sarreraren izapidetzea eten gabe.

Gastu- eta ordainketa-emaileak, edozein kasutan, eta Tokiko Erakundeetako kontu-hartzaileak, gastuak edo ordainketak desegokiak direla idatziz ohartarazten ez dutenean, baimentzen duten gastu ororen eta onartzen, likidatzen edo ordaintzen duten obligazio ororen erantzuleak izango dira, nahikoa krediturik ez badago.

Alkatetzak 2017ko maiatzaren 30ean onartutako kreditu gehigarriaren espedientearen ikusi da, baita kreditu-transferentziako 3-2017 espedientearen ere. Hartan, jarraian zehazten diren aurrekontu-aplikazioen zenbatekoak gaitzen dira, besteak beste:

3-2017 kreditu gehigarria

AURREKONTU-APLIKAZIOA	IZENA	ZENBAT EKOA
230.421.002	GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAILEA. AIARAKO KUADRILLA	2247,83
1622.421.001	AIARAKO KUADRILLA. HHS EKARPENEN ERREGULAZIOA, 2016	5054,85
323.421.001	HAIZERROTA PROIEKTUA. AIARAKO KUADRILLA	358,68
230.421.003	BERDINTASUN-TEKNIKARIA. AIARAKO KUADRILLA	1651,65
230.421.006	GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAILEAREN 2016. URTEKO LIKIDAZIOA	306,59
1622.226.001	USTIATEGIETAKO HONDAKINEN BILKETA	374,00



3-2017 kreditu-transferentzia

AURREKONTU- APLIKAZIOA	IZENA	ZENBAT EKOA
230.421.004	Berdintasun Plana. Aiarako Kuadrilla	1.430,01

2017ko apirilaren 6an, Udalbatzak "Aiarako Kuadrillaren 2016ko HHS ekarpenen erregularizazioa" gaiari dagokion kredituaren judizioz kanpoko aitortza onartu zuen, eta 2017ko ekainaren 8an, "Aiarako Kuadrillako Gizarte Ongizateko Laguntzailearen 2016ko likidazioaren zuzenketa" gaiari dagokion kredituaren judizioz kanpoko aitortza.

Antolamenduko Informazio Batzordeak, 2017koren(e)an baliozki bilduta, akordio hau hartzea proposatzen dio Udalbatzari:

AKORDIOA

LEHENA. Kontu-hartzaileak adierazitako eragozpenak kentzea eta espedienteak izapidetzen jarraitzea.

BIGARRENA. Kontu-hartzaileak akordio horren jakinaren gainean jartzea, dagozkion kontabilitate-izapideak egin ditzan."

Alkateak: Partidetarako kreditua dago dagoeneko. Beraz, zuzena da eragozpena kentzea. Zerbait esan nahi duzue?

Joseba Elejalde Ribacoba: Badago arreta eman didan gauza bat. Aurreko osoko bilkuran, laugarren puntuan, 2016. ekitaldiari dagokion kredituaren judizioz kanpoko aitortza ere onartu zen, eta orduan ere gizarte-ongizateko laguntzailearentzako 306 euro azaldu zirela. Orain, bi mila euro eta koska eskatzen digu. Nik ez dakit hori partzialki egiten den. Ezin dira likidazio guztiak epearen barruan egin? Izan ere, epetik kanpo ordaindu behar dugun bakoitzean, idazkariak edo kontu-hartzaileak eragozpen-ohar bat egin behar digu, eta eragozpen hori osoko bilkuran kendu behar dugu. Bada, nire ustez, Aiarako Kuadrillari eskatu beharko zaio likidazioak epe barruan eta behar bezala egiteko, eta ez...

Alkatea: Tira, bai, baina bi gauza dira. Bat da 2016ko likidazioa. Bestea da 2017an urte osorako lanaldi osoa finkatzea, eta ez dugu aurreikusten Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik izango dugunik.

Bozkatu egin da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

3. CELeke Enpresa Batzordearen mozio-proposamenaren onarpena.

Alkateak: Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet Pedro eta Luisma Artziniegako CELeke enpresa-batzordeko kideei. Eskerrik asko etortzeagatik. Horrenbestez, ondo baderitzozue, mozioa irakurriko dut lehendabizi.



“ARTZINIEGAKO UDALAREN MOZIOA, CEL TALDEKO LANPOSTUEN ETA INDUSTRIA-ETORKIZUNAREN ALDE.

Maiatzaren 2an, CEL taldeko Zuzendaritzak jakinarazi zien langileen lege-ordezkariei Administrazio Kontseiluaren erabaki hau: taldeko enpresak aurrekonkurtsora eramango dira.

CEL taldea lau enpresaz osatuta dago, eta lantegiak Artziniegan, Gueñesen eta Zallan daude. 254 langileri ematen die zuzeneko enplegua, baina, azpikontratutako pertsonala ere kontuan hartuta, 300dik gora familia daude eraginpean.

CEL taldeko langileok helburu hauek lortu nahi ditugu mozio honen bidez:

- Gure egoera jendaurrean salatzea: ez dugu industria-proiekturik, eta, beraz, gure lanpostuak kolokan daude, eta, lanik gabe, oso egoera larrian geratuko ginateke.
- Herri-erakundeen eta gizarte-eragileen engaiamendua eta esku-hartzea bilatzea. Ez dugu etsi nahi egoera bidegabe horren aurrean. Konponbide egokiren bat aurkitu nahi dugu lanpostu guztiak mantentzeko eta industria-jarduera iraunarazteko.

CEL taldea papergintzan aritzen da, eta taldeko lantegietako batzuek 50 urtez iraun dute orain arte. Bestalde, Kadagua eskualdean jardunean jarraitzen duten industria apurretako bat da, zeren, azken urteotan, desindustrializazio-egoera gogorra izan da, eta, gaur egun, Euskal Herriko langabezia-tasarik handienetariko bat duen eskualdea da.

Kimberly Klark multinazionalak alde egin ostean, CEL taldea arduratu zen lantegiez 2012. urtean. Akziodun nagusia INDARKIA zen, % 45 izanik, eta Iñaki López Gandasegi zen burua; gero, Eusko Jaurlaritzak, EZTEN arrisku-kapitaleko sozietatearen bidez, % 40 zuen; eta gainerako % 15 lantegietako kudeatzaileena zen.

Maiatzaren 26an bertan jakitera izan genuen akziodun nagusiek eta Eusko Jaurlaritzak utzi ziotela akziodun izateari. Akziodunek premeditazioz eta maltzurkeriaz alde egin dute, 300dik gora familia, zuzeneko eta azpikontratutako pertsonala kontuan hartuta, bertan behera utziz, ez baitago etorkizun-bermerik, ezta proiektu bideragarrikerik ere.

Gaur egun, enpresaren proposamenak plantillari xantaia egitera mugatzen dira, jardunean jarraitzeko lehengaiak ez dira iristen, eta lantegiak geldirik daude, urtarilaz geroztik argindarraren fakturak ez ordaintzeagatik hornikuntza eten baita.

Langileok ez gara egoera horren errudunak. Proiektu hau bideragarria izateko, inbertsiogile kaudimendunak eta finantza-bideak behar dira. Eusko Jaurlaritzaren eta akziodun nagusien uxaldia salatzen dugu, zeren kinka larrian utzi dute berez errentagarria den proiektu bat. Izan ere, enpresa bideragarria da. EBITDA positiboa izan du 2014. eta 2016. urteetan, 2017. urteko lehen hiruhilekoan. Gainera, goraka joan da nabarmen fakturazioan, 47,5 milioi euroko salmentak izatetik 65 milioi eurora igo baita 2017an (aurtengo lehen hiruhilekoan, fakturazioa ia 17 milioi eurokoa izan da).

Bideragarritasunik, inbertsiorik eta finantziatorik gabe: EZ DAGO ETORKIZUNIK.

Goiago azaldutako guztiagatik, Artziniegako Udalari eskatzen diogu:

- CEL taldeko lantegietan industria-jarduera iraunaraztearen alde eta lanpostuak eta lan-baldintzak gordetzearen alde agertzea.

- Enpresako zuzendaritzari jakinaraztea plantillari tinko eutsiko diola, eta enpleguarekin eta lan-baldintzekin engaiamendu irmoa duela.

- Gainerako herri-erakundeekin (Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) elkarlanean aritzea, etorkizuneko industria-proiektua finkatzeko, bereziki enplegua eta lan-baldintzak babestuz.

- Langileek beren lanpostuen alde egiten duten borrokan zuzenean laguntzea. CELeko langileak ez dira egonean geratuko, ahal diren esparru guztietan agertuko dira: enpresarekin berarekin egin beharreko negoziazioan, esparru juridikoan eta kale-mobilizazioan.”

Alkateak: Bueno, puntu honetan esan behar dut nik zenbait bilera izan ditudala. Eusko Jaurlaritzarekin eta enpresa-batzordearekin bildu naiz, eta



telefono-harremán arina dut haiekin. Enpresako zuzendaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin ere bildu naiz. Erakundeen helburua CELEntzat etorkizuneko proiektu bat aurkitzea da. Artziniegako lantegian 93 pertsonak egiten dute lan, taldeko 254 langileetatik: 70 papergintzan eta 23 xaboigintzan. Mozioaren zioen azalpenean esaten denez, maiatzaren amaieran Eusko Jaurlaritzak eta Indarkiak alde egin zuten, eta zuzendariak % 100arekin geratu ziren. Orduan aurkeztu zen aurrekonkurtoa, eta soldatak batez beste % 20 murrizteko proposamena egin zitzaion langileei. Murrizketa horri esker, 2.000.000 aurreztu daitezke urtean. Langileen gastua enpresaren gastu osoaren % 17 da. Ordain gisa, zuzendaritzak proposatzen du finantza-erakundeei 3.000.000 euro eskatzea azter daitekeela, eta 1.000.000 euroren ekarpena egitea pentsatzen ari da. Enpresak nominak ordaindu ditu, baina faktura elektrikoa ordaindu gabe dago urtariletik. Eta, gaur egun, Accionak energia elektrikoaren hornikuntza eten du Gueñesko eta Arangurengo lantegietan, baina, Artziniegakoan, ez; han, energia elektrikoa dago oraindik ere. Ez da adostasunik lortu. Eskaini den epea oso laburra izan da, eta, pasa den astean, zuzendaritzak hartzekodunen borondatezko konkurtsoa aurkeztu zuen. Egun, egoera horretan gaude, epaileak konkurtso-administratzaile bat izendatu zain. Hori da gaur egungo egoera, labur-labur.

Arkaitz San Jose Martínez: Gure ustez, moztio hau adostea da gaur garrantzitsua, CELEko langileei, Artziniegako lantegikoei eta gainerako lantegietakoei, gure babesa erakustea. Dena den, industriaren egoerari buruzko irakurketa orokorragoa egin nahiko genuke, gai honetatik arreta desbideratu gabe. Baina, tira, uste dugu egokia dela Artziniegako lantegiarekin eta oro har CEL taldearekin gertatzen ari dena testuinguruan jartzea. Besterik gabe, irakurri egingo dut:

«Gaur, seguruenik, indarrak batzeko garaia da, denok elkarrekin konponbide bat bilatzeko, eta ez da errua botatzeko unea. Baina, orobat, ekonomia sozial eta solidario baten alde egingo duen enpresa-kultura bat babesteko unea da. Ekonomia sozial eta solidario horrek balio soziala emango lieke gure herriei, eta ez litzateke BPGaren hazkundearen bidez soilik neurtuko, parametro makroekonomiko hori guztiz akastua eta okerra baita, eta ez baititu pertsonen benetako beharrak aintzat hartzen.

Salatu egin behar dugu Enkarterri eta beste eskualde batzuk basamortu bihurtzen ari den egungo industria-politika honek erantzuleak dituela, eta erantzuleak Bizkaiko Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan gobernatzen ari diren alderdi politikoak dira.

Duela egun batzuk, Euskal Herria Bilduk lehen batzarra egin zuen, eta, hartan, oso mezu argia bidali genien neoliberalari. Politika neoliberalak –pertsonen ordezkapitala aintzat hartzen duten politikak, desberdintasunak sortzen dituzten politikak, diru-kutxa publikoak hustu eta poltsiko pribatuak betetzen dituzten politikak– defendatzen dituzten guztiek aurrean izango gaituzte.

Enkarterri da esaten ari garenaren adibidea. Hori dela eta, gure elkartasuna adierazi nahi diegu eragindako familia eta pertsona guztiei; haietako batzuk Artziniegakoak dira.

Horrenbestez, gure ustez, administrazio publikoek industria-susperraldiaren aldeko konpromisoa hartu behar dute, Eusko Jaurlaritzak CEL en ez bezala jokatu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak hanka egin du, enpresari eta CELEko langileei kalte eginez, euren lanpostuak galdu dituztela ikusten baitute. Ildo horretan, EH Bilduk erantzukizunak eskatzen dizkie Eusko Jaurlaritzari eta hura babesten duten alderdi politikoei; izan ere, ia 300 familia daude zuzenean edo zeharka kaltetuta, CEL enpresa ixtearen ondorioz zalantza etorkizun baten aurrean.

Hori dela eta, uste dugu gure udalean lanari ekin behar diogula Artziniegak gainean duen desindustrializazio-etorkizun zalantzagarrari honi aurre egiteko. Gaur, CELEn gertatu da, gure udalerriko enpresa historikoan. Bestalde, Tubacex behin-behineko enplegu-erregulazioko espediente zalantzagarrari batean dago, eta hango langileek ez dakite zer gertatuko den etorkizunik hurbilenean. Azken urteetan, Ibar gazta-fabrika itxi dute, Fierro e Hijos enpresan



langileek beraiek hartu dute jarraitzeko ardura, ASK Chemicals Bizkaira aldatu da, eta Ortolatxipi, Andamios LUR eta beste enpresa batzuk itxi dira.

Gure iritziz, gauzak horrela, Artziniegan ere kemenak berritu behar ditugu, eta planifikatu zer ekintza egin ditzakegun, industria-arloko zer plan edo laguntza dauden Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan, Artziniega beste industria-basamortu bat izan ez dadin. Ekimenak sustatu behar ditugu, Artziniegan lan egiten eta bizitzen jarraitu nahi duten gazteentzat, bereziki. Izan ere, Artziniegak bizirik jarraituko badu, hemen jaiotzen direnek hemen bizitzen jarrai dezaten, beharrezkoa da hemen lana ere izatea.

Azkenik, gure elkartasuna eta babesera erakutsi nahi dizkiegu Artziniegako Tubacex enpresako zuzendaritzak hartu dituen enpresa-erabakiek eragindako pertsonen, gogoan hartuta langile horiek zer zalantza-egoeratan dauden. Eta, berriro diogu, babes hori CEL enpresako langileei ere hedatu nahi diegu».

Alkatea: Joseba, zerbait esan nahi zenuen?

Joseba Elejalde Ribacoba: Ez.

Alkatea: Bueno, nik, bai, gauza bat esan nahi dut. Bere garaian, Eusko Jaurlaritzak 2.500.000 euroko partaidetzazko kreditua eman zion CEL taldeari, eta, handik, 2.000.000 euro berreskuratu behar dira oraindik. Hori Eusko Jaurlaritzaren laguntza handia izan zen. Egia da Eusko Jaurlaritzak maiztean irten zela kapitalekin. Hala ere, 4.000 euroko kapitala zen, eta Eusko Jaurlaritzak % 40 zeukan; hots, 1.600 euro ingururi buruz ari gara berbetan. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza handia 2.500.000 euroko partaidetzazko kreditua izan zen, eta hori hor dago oraindik. Eusko Jaurlaritzarekin izan ditudan bileretan, prozesuaren jarraipena egiten ari direla esan didate. Are gehiago, beste inbertitzaile batzuk bilatzeko aukera aztertzen ari dira, batez ere orain, enpresa konkurtso-fasean baitago. Etorkizunera begira proiekturik badago, Eusko Jaurlaritzak hor egongo da, lagundu egingo du. Eta ni ziur nago egongo dela. Arkaitz, erakundeen konpromiso handiagoa eskatu duzu. Badakigu erakundeak ahal duten neurrian iristen direla, Gipuzkoako Foru Aldundia bezala, Fagor hartzekodunen konkurtsoan sartu zenean. Egin dezaketena egiten dute erakundeek; gehiago egitea, zaila. Baina, bueno, zurekin ados nago. Gaur ez ditugu erantzuleak bilatu behar, ez da errudunak bilatzeko unea. Denok nork bere ahalmeneren neurrian laguntzeko momentua da, CELentzat eta, jakina, Artziniegarentzat etorkizuneko proiektu bat egon dadin. Ezin dugu ahaztu, ondo gogorarazi duzunez, TTA behin-behineko enplegu-erregulazioko espedientean dagoela urtarrilaz geroztik, eta, egia esan, batzordekoekin hitz egiten duzunean, ikusten duzu aukerak ez direla oso positiboak.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

Joseba Vivanco Retes osoko bilkuratik irten da 09:20an.

4. Adierazpena Sexu Askatasunaren Nazioarteko Eguna dela eta.



“EKAINAREN 28A, SEXU ASKATASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, ARTZINIEGAKO UDALEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN PROPOSAMENA

Ekainaren 28an, Sexu Askatasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugu. Hain zuzen ere, pertsonen euren jardun eta orientazio sexuala askatasun osoz aukeratzeko eskubidea aldarrikatu eta ospatzen dugu, giza eskubideekin konpromisoa duten gizarteak sustatzen dituelako. Horrexegatik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu LGTBQ+ kolektiboari (lesbianak, gayak, transexualak, bisexualak, intersexualak, queer-ak, etab.), eta, bide batez, haien erronkarekin bat egin nahi dugu.

Lesbianismoak, homosexualitateak, transexualitateak eta, azken finean, sexualitatearen aniztasuna aldarrikatzen duten kolektiboek sexualitatearen eta identitatearen mugak zabaltzen eta aberasten dituzte.

Nahiz eta asko izan sexu-askatasunen aldeko gizarte-eragileek lortutako aurrerapen eta eskubideak, bide luzea daukagu egiteko oraindik. Sexua, generoa eta sexualitatea bakoitzaren nortasunaren elementu oso garrantzitsuak dira, eta askatasun osoz egin beharreko aukera izan behar dute. Jokaera jakin batzuen inposizio sozialak, alde batetik, maskulinitate- eta feminitate-eredu estereotipatu eta sexistak gauzatzen ditu, eta, bestetik, gorrotoa eta indarkeria sustatzen ditu parametro horietatik kanpo dauden jokabideen kontra.

Gainera, azpimarratu nahi dugu herri txikietan zailtasun gehiago daudela sexualitatea era askean bizi ahal izateko LGTBQ+ kolektiboentzat.

Aipatutako guztia kontuan izanda, Artziniegako Udalak honako konpromisoak hartu ditu:

1. Berdintasun-politiketan sexu-askatasuna eta genero-identitatea txertatzea.

2. Gure herrian gertatzen diren transfobia-, lesbofobia- eta homofobia-kasuak jasotzea, eta arretarako baliabide espezializatuera bideratzea, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Berdindu programara, hura delako LGTBQ+ kolektiboko adingabe, heldu eta familientzako arreta-programa.

3. Herritarrentzako kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. Era berean, eskura dauden baliabideei buruzko informazioa emango da, nola erabil daitezkeen azalduz.

4. Sexu-askatasunaren alde lan egiten duten elkarteei laguntzea eta gure babes eskaintzea, esaterako talde feministei eta, bereziki, LGTBQ+ elkarteei.

Amaitzeko, herritarrak gonbidatu nahi ditugu eskualdean antolatutako ekintzetan parte hartzera eta askatasun osoz bizi dezaten euren sexu-aniztasuna. Orobat, gure miresmena eta elkartasun osoa helarazi nahi dizkiegu ekainaren 28an sexu-askatasunaren aldeko nazioarteko eguna ospatu ahal izateko lan egin duten guztiei.”

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik(3); Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderditik (2);



Onartuta geratu da.

5. Alejandro Barcena Aguirre jaunak aurkeztutako berraztertzeo errekurtsua, Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko akordioaren kontra.

Alkatea: Bi berraztertzeo errekurtsu ditugu. Lehena, Alejandro Barcenak aurkeztu du. Akordioa irakurriko dut.

Ascensión Hormazabal Meabe: Bi puntutan egingo dugu. Bosgarrena da Alejandro Barcenarena.

OSOKO BILKURAREN AKORDIO-PROPOSAMENA

Gaia: Alejandro Barcena Aguirre jaunak aurkeztutako berraztertzeo errekurtsua, Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko akordioaren kontra.

2017ko otsailaren 24an, Alejandro Barcena Aguirre jaunak berraztertzeo errekurtsua aurkeztu zuen, Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko akordioaren kontra. Akordio hori 2017ko urtarrilaren 12ko osoko bilkuran onartu zen.

Aurkeztutako errekurtsuan, alde batetik, egindako mugaketa aldatzeko eta 737 A partzela bide publikotzat ez hartzeko eskatzen du errekurtsogileak, partzela hori bere jabetzakoa dela adieraziz. Beste batetik, 26 A azpi-partzelari dagokionez, eskatzen du haren atal asfaltatuan beste mugaketa bat jartzeko, baina labetegiaren eta etxearen arteko mugaraino soilik (labetegiaren kanpoko izkinatik etxeko fatxadaraino, zuzen). Hori dela eta, 26 B lursaila mugaketatik kanpo geratuko litzateke, errekurtsua jarritako akordioak ezartzen duen moduan, oinarri hauen arabera:

- Errekurtsogilearen ustez, erabakia I. Eranskinean (Mugaketa-espeditentearen hasierako memoriari buruzkoa) jasotzen den akats batean oinarritzen da; izan ere, 7. eranskina 26 A partzelarekin lotzen da, eta 8. eranskina, 26 B eta C partzelekin. Haren iritziz, bi eranskin horiek, Erregistroaren arabera 630 m² inguruko azalera dutenak, 26 partzela osoari (A, B, C eta D) eta egun 737 A (kalezuloa) azpi-partzela denari dagozkio. Bi partzela horiek 1957ko airetiko argazki birtindatuaren gainean identifikatu dira. Errekurtsogilearen iritziz, 7. eta 8. eranskinak, bai 630 m² inguruko azalera, bai haren mugetan, 590 m² inguruko katastro-azalarekin bat datoz. Katastroaren arabera, honela banatuta daude: 26 A, 171 m² (lurra); 26 B, 41 m² (aurreko lurra, pabilioiak hartzen ez duena); 26 C, 317 m² (pabilioia); 26 D, 32 m² (labetegia) eta 737 A, 29 m² (737 B etxera joateko kalezuloa).
- Haren ustez, ezin da zalantzan jarri 26 eta 737 A partzelen titulertasun pribatua berari dagokiola, fisikoki bat baitatoz Katastroarekin eta Erregistroarekin. Eta adierazi gertatu den: azken 35 urteetan zehar, zenbait eraikinek okupatu dituzte bi eranskin horiek partzialki, eta, udal-baimena bazuten ere (pabilioia eta minda-putzua), ez zen obra berriaren adierazpenik egin. Gainera, bi partzeletan, zenbait eraikin osagarri eraitsi dira, hala nola etxeari atxikitako txabola eta labetegia.



- Aurretiazko alegazioen idazkian adierazitako errepikatu du: ados dago bide publikoaren mugaketarekin 26 B partzelatik igarotzen den lekuan, baita 26 A azpi-partzelan asfaltatuta edo hormigoituta dagoen zatiari dagokionarekin ere; dena den, ez dator bat bide publikoarekin hedadurarekin, haren ustez labetegiaren kanpoko izkinatik etxeko fatxadaraino joan behar baitu zuzenean, lehen txabola (mindaputzura iristeko lekua uzteko eraitsia) zegoen lekua errespetatuta. Halaber, ez dago ados mugaketarekin 737 A partzelatik igarotzen den lekuan. Izan ere, hau ulertzen du: Arabako Landa Arkitekturaren Inbentarioan, Katastroan 737 B izendapena duen eraikinerako joateko kalezuloa itxurazko aldaketarik gabe erakusten da, eta, gaur egun, alboko eraikinak, 735 partzelakoak, erretena, hustubidea eta leiho batzuk ditu kalezulo horretarantz orientatuta; hala ere, kontuan hartu behar da 1991n Inbentarioa egin zenean pabilioia eginda zegoela, eta, beraz, eraikin horren ondorioz sortu zela kalezuloa. Eta kalezuloa errekurtsogilearen titulartasuneko da, 8. eranskinaren barruan baitago.
- Errekurtsogileak adierazi du Santa Kolomako bidearen erabilera baketsua eta eztabaidarik gabea izan dela, eta ez dela egon haren funtzionaltasun publikoari buruzko inolako eztabaidarik, beti errespetatu baita. Eta, inoiz abusurik gertatu bada, nahi gabe eta usurpatzeko asmorik gabe izan da. Adierazi du, bide baten erabilera publikoa frogatzeko, bide horrek herritarrentzat betetzen dituen edo bete izan dituen funtzio sozial eta ekonomikoak identifikatu behar direla, eta, 737 A eta 26 A partzelei dagokienez, mugaketaren xede diren partzeletan, ez da egon eta ez dago funtzio sozial edo ekonomikorik.
- Gaineratu du, bide baten izaera publikoa frogatzeko, erabilera publikoa antzinakoa dela frogatu behar dela, eta, kasu honetan, frogek berresten dutela mugaketaren xede diren tarteez ez dutela erabilera publikorik izan.

Errekurtsua gainerako interesdunei helarazi zitzaizen, alegazioak egin zitzaizten. Eta 2017ko ekainaren 6an, Marco Antonio Sabater del Val jaunak posta-bulegoan 2017ko ekainaren 2an emandako dokumentuaren sarrera erregistratu zen. Dokumentu horretan, Sabater del Val jaunak adierazten du ez dagoela aurkeztutako errekurtsoarekin ados. Gainera, bere familia inguruan bizi dela argudiatu du, eta bere seme-alaba txikiek, bide horren ondoan bizi direnek, erabili izan dutela. 737 A partzelari dagokionez, adierazi du Udalaren etxea, ekialdetik, lursail publiko batera begira dagoela, eta 26 A partzela etxeko fatxada baten alboan dagoela, eta etxea bide publikora begira ere badagoela. Errekurtsua baiestearen erabat kontra dago, argudiatuz partikularrek beretzat hartu dituztela Santa Kolomako bide eta lur publikoak, batzuen eta besteen izenean erregistratu zirela Katastroan. Eta adierazi du Auzitegi Gorenaren arabera bideak preskribaezinak direla, eta ez dutela zertan inbentariatuta edo erregistratuta egon tokiko erakundeek haiek babestu ditzaten.

Horrenbestez, ezin da onartu aurkeztutako berraztertze errekurtsua, honako oinarri hauek aintzat hartuta:

- Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 737 A eta 26 A partzeletatik, besteak beste, igarotzen den lekuan egindako mugaketa Arabako Foru Aldundiko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuko zerbitzu teknikoek 2016ko azaroaren 24an adierazitakoari jarraituz egin da. Horri buruz, txostenak honako hau dio:
 - Bide publikoari dagokionez, 26 partzelako A azpi-partzelatik igarotzen denean, azterketaren ondorioek agerian uzten dute Katastroa 2002an berriro ezarri zenean 26 A azpi-partzelaren mendebaldeko muga justifikatu gabe aldatu zela, 1957ko airetiko argazki birtindatuen ikusten denarekin alderatuta. Beraz, ondoriozta daiteke txabolak (1990ean



eraitsia, minda-putzura joateko lekua uzte aldera, Alejandro Bárcena Aguirrek bere alegazio-idazkian adierazten duenez) hartzen zuen lekua bide publikoa dela. Horren ondorioz, teknikariek proposatzen dute Katastroan Artziniegako 4. industrialdeko 26 A azpi-partzela modura agertzen den jabetzarekin ekialdera mugatzen den bide publikoaren mugak hormigoitutako espazio osoa hartzea, lursail pribatu modura 737 partzelako etxebizitzara sartzeko eskailerak hartzekoa errespetatuz.

- Bide publikoari dagokionez, 737 partzelako A azpi-partzelatik igarotzen denean, teknikariek adierazten dutenaren arabera, egindako azterketatik ondoriozta daiteke lursail hori osorik bat datorrela bide publikoarekin, elkarren alboko fatxadek mugatuta.
- Ez da akatsik hautematen Foru Aldundiko teknikarien erabakietan. Hain zuzen, ortoargazki historikoak eta Arabako Landa Arkitekturaren Inbentarioa aztertu ostean, 26 partzelako a azpi-partzelaren zati bat bide publikoa dela ondorioztatuta dute. Orobat, adierazi dute 1211. zenbakiko erregistro-finka, Solaiglesia izenarekin ezagutzen den etxea eta egun Katastroan 737 B partzela dena, Katastroko 26 A partzelako espazioaren mugakidea dela. Erregistro-inskripzioan, hegoaldeko muga gisa azaltzen da ("aurrealdeak bide publikoarekin du muga"). Hori berresten du 1962ko 27. zenbakiko jabari-espeditenteak, Alejandro Bárcenak sustatutakoak.
- 737 partzelako A azpi-partzelatik igarotzen den bidearen izaera publikoari dagokionez, teknikariak adierazten dute, ortoargazki historikoak aztertu ondoren, ez dela aldaketarik gertatu espazio horretan. Halaber, Arabako Landa Arkitekturaren Inbentarioaren V. Liburukiko 1497. orrialdean dagoen argazkian (egungo Katastroan 737 B gisa azaltzen den eraikinera joateko kalezuloa erakusten duena), ikus daiteke ez dagoela itxuraz aldaketarik, eta ikusten da alboko eraikinak (735 partzela) erretena, hustubidea eta leiho batzuk dituela kalezulo horretarantz orientatuta dituela. Orobat, adierazi dute 1211. zenbakiko erregistro-finka, Solaiglesia izenarekin ezagutzen den etxea eta egun Katastroan 737 B partzela dena, iparraldean, ezkerretatik, mugakidea dela Jose Largacharekin. Hori berresten du 1962ko 27. zenbakiko jabari-espeditenteak, Alejandro Bárcenak sustatutakoak. Iparraldeko muga hori eta ezkerretatik hori bat datoz, neurri handi-handi batean, 735 partzelako eraikinarekin (1967. erregistro-finka); egun, eraikin hori Artziniegako Udalarena da. Errekurtsogileak adierazten duenari aurre egiteko, teknikariek argudiatu dute 1211. erregistro-finkak zenbait eranskin dituela, baina haietako bat ere ez dagokiola egun Katastroan 737 A izendapena duen etxearen alboko espazioari. Bestalde, argudiatu dute 1967. erregistro-finkak, Udalaren jabetzakoak, zehazten duela 735 partzelaren barruko eraikinaren ekialdeko lursaila komuna dela. Lursail hori Katastroan 737 partzelako A azpi-partzela gisa azaltzen den espazioa da.
- Mugatzen den bidearen erabilera publikoa zalantzan jartzen duten alegazioei dagokienez, esan behar da alde aurretiko bide bat hartu dela aintzat, eta haren erabilera publikoa guztiz egiaztatuta dagoela Mugaketa-prozedura 2015eko urriaren 8ko osoko bilkuran adostutakoaren ondorio da. Akordio horren bidez, laguntza eskatu zitzaienten Foru Aldundiko zerbitzu teknikoei, Santa Kolomako bidearen mugaketa egiteko, bidearen xede eta funtzionaltasun propioekin bat ez zetozen erabilera pribatuak zeudela ohartuta. Usurpatutako lur-zatia identifikatzeko, mugaketa egiteko administrazio-egintza gauzatu da, eta prozedura osoa legez eta interesdunen berme guztiak errespetatuz egin da.

KONTUAN HARTUZ.- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 56.-59. artikuluetan xedatutakoa.



KONTUAN HARTUZ.- Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.j) artikuluetan eta horiekin lotutakoetan xedatutakoa.

Udalbatza honek, ohiko osoko bilkuran, 2017ko ekainaren 30ean... (adierazi gehiengoa),
...

ADOSTU DU:

LEHENENGOA.- Alejandro Barcena Aguirre jaunak Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko 2017ko urtarrilaren 12an hartutako akordioaren kontra 2017ko otsailaren 24an aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ez onartzea. Izan ere, egiaztatuta geratu da Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek emandako txostenaren justifikazioak babesten duela onartutako mugaketa, eta prozedura lege-baldintza guztiak betez eta interesdunen bermeak errespetatuz egin dela.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesa duen orori ematea, eta jakinaraztea haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean. “

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (2); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

6. Angel Arechavala Torre jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko akordioaren kontra.

OSOKO BILKURAREN AKORDIO-PROPOSAMENA

Gaia: Angel Arechavala Torre jaunak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko akordioaren kontra.

2017ko otsailaren 23an, Angel Arechavala Torre jaunak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko akordioaren kontra. Akordio hori 2017ko urtarrilaren 12ko osoko bilkuran onartu zen.



Errekurtsogileak mugaketa ezeztatzeko eta bertan behera uzteko eskatzen du, Artziniegako 4. industrialdeko 738 A partzelari dagokionez. Horretarako, argudio hauek ematen ditu:

- Haren ustez, ez dira bete mugaketari dagozkion lege- eta jurisprudentzia-baldintzak, eta adierazi du Artziniegako 4. industrialdeko 738 A katastro-finka, egungo forma fisiko eta katastralaren arabera, bere jabetzakoa dela. Haren iritziz, hori behar nahiko dokumentatuta dago egungo mugaketaren aurreko administrazio-espeditentean.
- Adierazi du ez direla bete Ondasunen Araudiaren 58. artikuluan ezarritako baldintzak, eta ez dagoela mugaketaren xede den bidea Artziniegako Udalaren titulartasuneko herri-jabariko ondasuna dela akreditatzen duen informaziorik.
- Gaineratu du ez dela bete ondasuna ofizios berreskuratzeko prozedura. Prozedura hori Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 82.a) artikuluan dago jasota. Hain zuzen, ez da egiaztatu usurpatutako ondasunak Administrazioaren jabarikoak direla eta erabilera publikoa oztopatu dela. Amaitzeko, argudiatu du berreskuratu nahi diren ondasunak bere titulartasunekoak direla, inork ez duela ondasun horien erabilera publikoa oztopatu, eta ondasun horiek legezko jabeek izan dituztela jabe modura, aspaldi-aspalditik, hedadura osoan eta egungo katastro-forman.

Errekurtsoa gainerako interesdunei helarazi zitzairen, alegazioak egin zitzaizten. Eta 2017ko ekainaren 6an, Marco Antonio Sabater del Val jaunak posta-bulegoan 2017ko ekainaren 2an emandako dokumentuaren sarrera erregistratu zen. Dokumentu horretan, Sabater del Val jaunak adierazten du ez dagoela aurkeztutako errekurtsoarekin ados eta ez dela egia 738 A katastro-partzela errekurtsogilearen jabetzakoa denik. Sabater del Val jaunak argudiatu du errekurtsogileak isilean gorde duela garrantzitsuena; alegia, ataurreak, 20 m² izan beharrean, 193,96 m² dituela sinestarazi nahi du, eta bere etxeak mendebaldean bide publikoa duela, eta ez ataurrea. Adierazi duenaren arabera, ez da egia aurreko administrazio-espeditentean idatziz jasota dagoenik 738 A partzela bere jabetzakoa dela; izan ere, hori egia izan balitz, ez zatekeen mugaketa egingo. Aurkaratzen den akordioarekin ados dagoela adierazi du, eta Arabako Landa Arkitekturaren Inbentarioko (1991koa) argazkietan ikus daitekeela ez dagoela hesirik, eta bide publikoa etxearen fatxadaraino iristen dela. Gehitu du 738 A partzela 2002an sortu zela eta usurpazio-egintzak 2007an salatu zirela. Ikerketa-espeditentea 2008an ireki zen. Hortaz, ezin da esan egoera eta jabetza horiek aspaldi-aspaldikoak direnik.

Horrenbestez, **ezin da onartu** aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, honako oinarri hauek aintzat hartuta:

- Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A A partzela dagoen lekutik igarotzen den lekuan egindako mugaketa Arabako Foru Aldundiko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuko zerbitzu teknikoek 2016ko azaroaren 24an adierazitakoari jarraituz egin da. Txostenean hau adierazten da: Jabetzaren Erregistroa jabaria egiaztatzeko funtsezko oinarria denez, azterketatik ateratako ondorioek agerian jartzen dute 126 zenbakidun finkaren erregistro-inskripzioak ahultasunak dituela atarriaren mugei dagokienez. Kontuan izanda partzelako gainerako elementuen kasuan deskribatutako azalerek koherentzia geometrikoa erakusten dutela, irizten da Santa Kolomako bide publikoak, 738 zenbakidun partzela dagoen lekutik igarotzen den puntuan, etxearen mendebaldeko fatxada izan behar duela mugakide. Halaber, ohartarazten da bideak, jarraipenean, ataurrea izan behar duela mugakide. Ataurre hori 20 m²-ko espazio bat da, etxearen iparraldeko aurrealdearekiko paralelo dagoena. Horrenbestez, 738 A azpi-



partzelaren gainerako eremuan usurpazio-zantzuak daudela uste da, txostenaren X. eranskineko irudikapenean islatzen den moduan.

- Beraz, ezin da onartu usurpazioa ez denik gertatu. Aitzitik, espedientean dagoen dokumentazioa eta egin duten azterketa sakona kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiko teknikariek ondorioztatu dute bidearen mugaketa egitea egokia dela, 2017ko urtarrilaren 12ko osoko bilkuran onartutako moduan. Teknikariek adierazi dute atarriaren deskribapena (738 A), mugei dagokienez, hegoalderantz (etxea) soilik dela koherentea, eta ez dela koherentea iparralderantz (labea); izan ere, labea (26 D azpi-partzela), finka horretarako elementuren baten mugakidea izanez gero, txabolaren mugakidea izango litzateke (738 C). Ekialdeko (bidea) eta mendebaldeko (ortua) mugak ere ez dira koherenteak. Kasu horretan, transkripzio-akats bat hauteman da: erdaraz ekialdearen ordezkari mendebaldea jarritz gero, deskribapen horiek zentzua izango lukete. Orobat, azalera ere koherentziarik eza dago; izan ere, erregistro-inskripzioan 20 m² daude jasota, eta egungo perimetro-itxiturak 193,98 m² ematen dizkio. Erregistro-azalera nolabaiteko marjina egotea onar daiteke, baina % 90eko aldea ez da inondik inora onargarria.
- Kontuan hartu behar da mugaketa-prozedura 2015eko urriaren 8ko osoko bilkuran adostutakoaren ondorio dela. Akordio horren bidez, laguntza eskatu zitzaie Foru Aldundiko zerbitzu teknikoei Santa Kolomako bidearen mugaketa egiteko, bidearen zenbait tartetan erabilera pribatuak zeudela ohartuta, eta, erabilera horiek zehazteko, beharrezkotzat jotzen da mugaketa egitea. Usurpatutako lur-zatia identifikatzeko, mugaketa egiteko administrazio-egintza gauzatu da, eta prozedura osoa legez eta interesdunen berme guztiak errespetatuz egin da.
- Errekurtsogileak argudiatu du ez dela egiaztatu Santa Kolomako bidea Udalaren titulatasuneko herri-jabariko ondasuna denik, baina, horri aurre egiteko, teknikariek adierazitakoa ekarri behar da gogora: gaur egun existitzen den bide bat da, eta hori ez da zalantzan jarri prozeduraren izapideetan zehar. Haren mugaketa ebatzi da, eta espazio publikoaren usurpazioak daudela ondorioztatu.
- Ezin da onartu errekursogileak bere lurra aspaldiko jabetza jabe modura adieraztea. Mugaketari eusten dion txosten teknikoan azaltzen denez, 738 partzelaren katastro-*alta*, partzelako eraikuntza-unitateak adierazten dituena, 1988. urtekoa dela eta ondoren, 2002. urtean, partzelak hartu zuela egungo itxura, 193,98 m²-ko A azpi-partzela landatarrarekin (atarria). Hain zuzen ere, atarriari dagokion mugan bide publikoa okupatu egin dela egiaztatu da; izan ere, 20 m²-ko katastro-azalera du atarriak, eta deskribapenak ez du okupazioa babesten.

KONTUAN HARTUZ.- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Ondasunen Araudiaren 56.-59. artikuluetan xedatutakoa.

KONTUAN HARTUZ.- Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.j) artikuluetan eta horiekin lotutakoetan xedatutakoa.

Udalbatza honek, ezohiko osoko bilkuran, 2017ko ekainaren 30ean... (adierazi gehiengoa),

...

ADOSTU DU:

LEHENENGOA.- Angel Arechavala Torre jaunak Santa Kolomako bide publikoa Artziniegako 4. industrialdeko 738 A, 38 B, 737 A, 26 A, 26 B eta 49 A partzeletatik igarotzen den



lekuan ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzeko 2017ko urtarrilaren 12an hartutako akordioaren kontra 2017ko otsailaren 23an aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ez onartzea. Izan ere, egiaztatuta geratu da Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek emandako txostenaren justifikazioak babesten duela onartutako mugaketa, eta prozedura lege-baldintza guztiak betez eta interesdunen bermeak errespetatuz egin dela.

BIGARRENA.- *Akordio honen berri interesa duen orori ematea, eta jakinaraztea haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean. “*

Alkatea: Hori da proposamena. Zerbait esan nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (2); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

Joseba Elejalde Ribacoba: Gauza bat, lehen ahaztu zaidana, ez naiz konturatu. Nire babes osoa eta nire aldeko botoa adierazi nahi ditut ekainaren 8ko osoko bilkurako 6. puntuan landu zen mozioan, ez bainintzen izan. Inmak talde guztiei azaldu zien, baina, izan ez nintzen arren, nire babesa hor zegoen, jakina.

Alkatea: Ez zeunden, baina gogoan genuen.

Eta jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko bederatzia eta hogeita bost minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.